

Elgoibar - 1288. zenb.
XXI. urtea - 2023-06-02




TOKIKOM

BARREN


Bidegile eta bide zabaltzaileari, esker onez

Anjel Bazterretxea (1936-2019)

LAGUNAK
colchoneria textil hogar



+



Luzeza:	90	105	135	150
Prezioa:	745€	835€	975€	1035€



180 cm-ko luzeerako koltxoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**

1. STRETCH SEAQUAL EHUNA
2. VISCOTERMIC EHUNA
3. 60º GARBITZEKOA
4. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
5. ATSEDEN INDEPENDENTEA
6. ARTIKULAZIOA ETA TRANSPIRAZIOA PROFILATZEA
7. ZIRKULAZIOA HOBETZEN DU - 8. ERGONOMIKOA

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erixe zentruetan zerbitzuak.

Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitez harpidedun!

Aspaldi bazabiltza
BARREN etxeko buzoian
jaso nahian edo
jaso nahi lukeen beste norbait
ezagutzen baldin baduzu,
oraintxe duzu aukera.
Deitu, idatzi edo
etorri bulegora.

943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



EXPRESS ESKAINTZAK!

S3134/51
BIZARRA
MOZTEKO
PHILIPS
MAKINA

59 €



- Lehorrean eta hezean erabilgarria
- 60 minutuko autonomia
- Buru malgu eta pibotatzaileak
- Powercut hortzak

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Maialen Sanchez

Idazlea

Amatasuna



**"Lagun batzuek
erabat entregatutako
ama izatearen alde
egin zuten"**

Zorionez, bizitzak, gure buruari lehentasuna ematen irakatsi digu, nahiz eta gutariko askok gai hau ondo ikasi dugun, oraindik gizaki bezala bide luzea dugu aurretik.

Bada sinesmen orokor bat gurasoak euren izaera berri horren morroi bihurtzen dituen, ematen den pauso bakoitza epaituz. Orain dela egun batzuk, lagun batzuekin partekatzen nuen kafearen unea eztabaida bihurtu zen. Nola jokatu behar dugu ama bihurtzen garenean? Batzuek beren bizitzaren osagarri gisa ikusten zuten amatasuna, ni "neurekoia", indibiduala, alde batera utzi gabe; beste batzuek aldiz, erabat entregatutako ama izatearen alde egiten zuten, bere burua ahaztuz. Nik ikusle soil gisa, nire ondorioak atera nituen.

Umeak hazteko erak asko aldatu dira. Orain dela 50 urte umeen hazkuntza guztiz desberdina zen, ez naiz sentimenduei buruz ari. Garai hartan emakumeek "egin behar zutena" egiten zuten. Bete beharreko eginkizunei men egiten zieten, konformatzen ziren, ez zuten beste aukerarik. Emakumeak etxean itxaroten zuen bitartean, gizonak seme-alaben beharrak ordaintzen zituen soldata ekartzen zuen, beti etxetik.

Gaur egun, emakumea erabat independentea da, beti noiz, nola eta norekin erabaki dezake. Pertsona batek guraso izatearen abenturari ekitea erabakitzen badu, oso garrantzitsua da bere ongizatea ez ahaztea, bizitza berriak okupazio berriak ekarri arren, besteen bizitzak epaitzen dituztenei kasurik egin gabe. Ez zaio inoiz utzi behar norbaiti gustatzen zaiona egiteari. Norberarentzako denbora, eta hau kalitatekoa, izateak bizitza berriko kezka guztiei aurre egiten lagunduko du, nire lagun on batek esaten duen moduan: "zu pozik, ni pozik, denok pozik".

4 GUTUNAK

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko, Elgoibar!

Konfiantza eskatu genizuen eta jaso dugu. Abstentzioa izan da gehien igo dena eta horri aurre egiteko lan egingo dugu, gudan jartzen duzuen konfiantza indartu eta gure konpromisoa erakusteko. Gure herria hobetzen jarraitzea da gure bokazioa, etorkizunera begira dagoen Elgoibar baten alde.

Elgoibartarrak zarete gure lehentasuna eta pertsonak erdigunean jarrita ekingo diegu lau urte hauei. Hauteskundeetan proposatutako proiektuak garatzeko lan egingo dugu, seriotasunez, zuhurtziaz eta apaltasunez.

Gure atea beti izango dituzue zabalik. Adostasuna bultzatuz, besoak zabalik izango ditugu beste alderdiei eta herriko eragile, elkarte eta pertsoneri begira. Elkarlanean, Elgoibar hobea lortzeko.

EAJ Elgoibar

Zeren zain gaude?

Frantziako Gobernuko lehen ministroaren aldizkari ofiziala den *Service-public.fr* webgunean jakin dut, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera herritar guztiak derrigortuta egongo direla beren hondakin organikoak bereiztera eta konpostatzera (2020ko otsailaren 10ean onartutako legean, xahutzearen aurkako eta ekonomia zirkularraren aldekoan). Bio-hondakinok zabor nahasientzako edukiontzi berde handian jaurtitzen harrapatutako herritarrak 35 euroko isuna ordaindu beharko du, hondakinak gaika sailkatzeko aginduak urratzeagatik.

Herritarrek hondakin organikoak ondo bereizi eta konpostatzeko Herri Elkargoek baliabide guztiak eskaini beharko dituzte: bilketa berezi bat egiteko ontzi egokiak, banaka edo multzoka konpostatzekoak,... Soluzio asko daude bio-hondakinontzako, udalerrien izaeraren (hiriak, landa-eremuak) eta familien bizilekuaren (apartamentua, etxe bakarra) arabera: familia bakoitzak bere ontzian konpostatzea, taldekako

ontzietan egitea (eraikin, kale edo auzoka multzokatuta), bilketa berezi bat antolatzea [herri elkargoek ari da] ontzi handietan, enbalajeekin eta beirakiekin egiten den moduan...

Hondakin organikoak sorlekuan bertan bereiztea jada derrigorrezkoa da enpresa eta kolektibitateentzako, urtean hamar tona organiko edo 60 litro olio sortzen dituztenentzako. Aurtengo urtarriletik derrigortasuna zabaldua zen urtean bost tona organikotik gora sortzen dutenentzako. Zazpi hilabete barru, etxebizitza guztietan izango da derrigorrezkoa gaikako bilketa eta organikoaren konpostatzea. Frantzian egin badaiteke, hemen zeren zain gaude?

A.I.Z.

Queen taldearen abestiak eskainiko ditu Udal Musika Bandak ekainaren 9an Maalako parkean

Queen gaua izendatu du datorren barikukoa, ekainaren 9koa, Elgoibarko Udal Musika Bandak. Orain urte batzuk hasitako ohiturari jarraituz, kontzertu berezia emango du bandak. Herriko Antzokitik irten, eta Maalan izango da, 22:30ean. Aurtengoan Queen taldearen doinuak eskainiko dituzte musikariek.

Ez da Elgoibarko Udal Musika Bandak horrelako kontzertuak antolatzen dituen estreinako aldia. Izan ere, Rock gaua egin dute behin baino gehiagotan herriko musikariek batera, Celtas Cortos taldearekin ere aritu ziren, modu klasikoagoan Soralezeko Ezoziko Ama abesbatzarekin ere eta iaz Gospel gaua egin zuten, Goizargi Gospel Choir taldearekin.

Oraingoan ordu eta erdiz Queen taldearen abestiek hartuko dute Maala eta bandako kideek herriko hainbat musikari izango dituzte lagun. "Gure Freddie Mercury Jon Gurrutxaga izango da eta bera abeslari lanetan jarduteaz gain, Patxi Zabaletak gitarra joko du, Andoni Mujikak baxua eta Silvia Hernandezek pianoa", jakinarazi digu bandako zuzendari Gorka Mujikak.

Berezia izango dela jakin badaki Mujikak. "Queen ezaguna da jende askorentzat eta nik uste dut funtzionatuko duela. Baina jendeari ez diot pentsarazi nahi Queen bere horretan entzungo duenik, kontzertua bandarentzat prestatuta baitago. Esaterako, Queenek joz gero bakarkako bat gitarrarekin egingo luke eta gure kontzertuan saxofoiarekin entzungo da, ezberdina izango da. Neurri handi batean bandak izango du bere protagonismoa".

Guztira 13 pieza joko dituzte eta horietatik bi bandak bakarrik joko ditu, aipatutako musikarien eta abeslariaren laguntzarik gabe. Hala ere, kantuen aukeraketa denen artean egin dute. Kantari izango den Jon Gurrutxagak jakinarazi



digu kantu batzuk bandarako prestatuta zeudela jadanik eta beste batzuk egokitu egin behar izan dituztela. "Kantu gehienak ezagutuko dituzte entzutera gerturatzen direnek. Izan ere, taldearen kantu arrakastatsuak dira, eta Queenen oso zale izan gabe ere ziur nago noizbait, irratian bada ere entzun dituztela gehienek".

Hirugarrena izango da Jon Gurrutxagarentzat bandarekin kantuan egingo duen kontzertu hau eta berarentzat nolakoa izango den galdetuta esan digu Queenenak izanik "zailtasun puntu handia" daukatela kantuek. "Freddie Mercury sekulako gaitasuna zuen eta alde horretatik erronka bat da niretzat kontzertu horretan abestea".

Hala ere, ilusio handiz arituko da bandarekin taula partekatuz eta prestatzeko lan handia egiten ari dira. "Guretzat ez da ohiko formatua. Metal instrumentuekin eta hainbeste musikari inguruan ditugula ez gara inoiz joaten eta sonoritatea ere ezberdina da, baina dudarik gabe gogoz jardungo gara".

Queenen kantuak ezagunak izanik eta herriko musikariak taula ganean egonda animatu nahi dituzte herritarrak kontzertura. "Ikutu berezia izango dute bandaren abestiek ohiko doinuetatik eta lekutik aterata eta gau polita izango den usteen etortzera gonbidatu nahi ditugu elgoibartarrak", esan du Gorka Mujikak.

Gasteizko protestara batu dira Elgoibarko pentsiodunak



Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, manifestazio jendetsua egin zuten joan zen eguenean Gasteizen, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan dadin eskatzeko. Astelehenean abiatu ziren protestara batu zirenetako batzuk Bilbotik, eta Bergararik irten ziren beste adarra osatu zuten taldekoak. Martitzenean, berriz, Arabako pentsiodunen zutabekoak batu zitzaizkien, Agurainen, eta herri ezberdinetatik igaro ostean, Gasteizen elkartu ziren eguenean, manifestazioan, tartean Elgoibartik joandakoak ere bai. Gutxieneko pentsioa 1.800era igotzeko eskatu zioten Espainiako Gobernuari, euskal erakundeei, berriz, bitartekoak jar ditzatela 1.080 euroko pentsiora heltzen ez diren gutxieneko pentsioak osatu ahal izateko, hamalau ordainsaritan. Erabaki hori Jaurilaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren eta legebiltzarren borondate politikoaren menpe dagoela esan zuten, eta ez dagoela hori eragozten duen arrazoi politiko edo ekonomikorik.

Gaur jarriko dituzte martxan Mendaroko ur txorrotak

Gaur, ekainak 2, zabalduko dute Mendaron Maite Maiora kirolguneko ur parkea, eta irailaren 16a arte, 10:00etatik 20:00etara egongo dira martxan txorrotak. Iazko beroaldia kontuan hartuta, aurten bi astez aurreratu dute ur parkearen zabalteza.

Zaporeak eta IZAN fundazioa diruz lagundu ditu Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak hitzarmena sinatu du Zaporeak Solidarios Garapenerako elkartearekin eta IZAN fundazioarekin eta horren baitan 725 euro bideratuko ditu bi elkarteetara 2023ko ekimenak finantzatzeko. Elikadura on baten bidez pertsona kalteberen egoera hobetzeko sortu zuten Zaporeak elkarte, eta aurten, 500 euro jasoko ditu Mendaroko Udaletik. IZAN fundazioa, berriz, droga-menpekotasunen tratamenduaren inguruan lanean diharduen elkarte da. Mendaroko Udalak 225 euroekin finantzatuko du elkartearen jarduna.

Ekainaren 10ean ospatuko dute Elgoibarren Ikastolaren Eguna

Elgoibar Ikastolatik jakinarazi dute ekainaren 10ean ospatuko dutela aurten Ikastolaren Eguna, ikasturteari amaiera emateko festa giroko eguna. Goizean goiz hasiko dute jaia, plazatik ikastolaraino trikitilari eta buruhandiek ingongo duten kalejirarekin. Behin ikastolan, askotariko jarduerak eta ekintzak izango dituzte prest familiek elkarrekin egun polit bat pasa dezaten. Altxorren bila, herri kirol saioa, eskulanak... eta eguerdian, Niala magoaren ikuskizuna eta dantza lehiaketa ere izango direla aurreratu dute.

6345 zenbakia suertatu da sariduna Atabal elkartearen errifaren zozketan

Joan den zapatuan egin zuten hileko azken zapatuko feriare barruan, herriko baserrietako produktuez osatutako otarre bat zozkatu zuen Atabal elkarteak. 6345 zenbakia suertatu zen sariduna, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez oraindik ez da agertu zenbaki sarituaren jabea. Otarra Eizagirre okindegian zain duela gogorarazi diote.



Maialen Mazonen hilketatik matxista salatzen dute



Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak eta Lila Emakumeen Etxeak deituta, elkarretaratzeak egin zituzten astelehenean Mendaron eta Elgoibarren, Maialen Mazon 32 urteko emakumearen hilketatik matxista salatzen. Gasteizen sortua zen Mazon, haurdun zegoen eta 3 urteko alabaren ondoan topatu zuten hilotz domekan, Gasteizko apartamentu-hotel batean. Ospitalean egin zizkioten azterketetan ez zioten indarkeria zantzurik topatu umeari. Igande iluntzean bertan, atxilotu zuten biktimaren bikotekidea, 34 urteko gizonezkoa, Zaragozan (Espainia), emakumea hiltzea leporatuta. Bi asteren buruan Euskal Herrian hil duten bigarren emakumea da Maialen Mazon. Iaz bost emakume hil zituzten Euskal Herrian, eta 2003tik, 120 emakume falta dira, eta 11 ume.

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak jakinarazi zuen Herrialde Katalanetako

epaitegi batek «muturreko arriskuko» babesa ezarria ziola Maialen Mazoni eta Ertzaintzak urtarilaren 23an jakin zuela erasotzailea urrutze agindua urratzen ari zela, Gasteizko hotel bateko arduradunek abisatu zutenean bikotekidea izen faltsu batekin erregistratu zela. Erkorekak azaldu zuen emakumearekin harremanetan jarri zela orduan Ertzaintza, eta maiatzaren 18an berriro deitu ziotela, Gasteizera itzuli zirelako biktima eta haren bikotekidea, eta berriro ere izen faltsuak erabili zituztelako apartamentu-hotelean ostatu hartzeko. Erkorekaren arabera, ertzainak emakumearekin harremanetan jarri ziren bigarren aldirian bikotekidearekiko harremana berregin nahi zuela esan zien hark eta ez zuela bere burua arriskuan ikusten. Adierazpen horien harira, mugimendu feministetatik neurri integralak eskatu dituzte eta tartean formakuntza feministan inbertitzea.

Ireki dute Mendaroko trenbide gainera pasabidea



Mendaroko tren geltokian errailen neurria zegoen pasabidea ordezkatzeko alde banatan igogailuak ipini dituzte baita bien artean oinezkoentzako trenbide gainera pasabidea eraiki ere. Asteon, hain zuzen ere jarri dituzte martxan igogailuak eta jendeak pasabide berritik igaro du trenbidea oinez. Pasabidea erabilgarri badago ere, oraindik zenbait lan egiteko daude trenbidean eta nasetan.

Kultura aniztasunaren elkargunea izango da Elgoibar hilaren 11n, Auzoko egitasmoaren jaietan

Elgoibarren elkartuko dira aurten Auzoko egitasmoa martxan duten herri guztietako partaideak. Ekainaren 11n izango da jaiak. 11:30ean hasita, jatorri ezberdinetako hizkuntzek eta kulturek bat egingo dute, euskaratik mundurako zubiak eraiki eta elkarrekin aniztasunean gozatzeko. Herriz herri egiten den lana plazaratzearekin batera, parte-hartzaileek bertaratzen diren euskaltzale guztiarekin bizipenak konpartitzeko aukera eskaintzen du Auzoko Jaiak. Horretarako, musika, dantza eta gastronomia uztartzen dituen egitarau oparoa osatu dute Euskaltzaleen Topaguneak, Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesarekin.

Ongietorri ekitaldi txiki batekin emango dio



2022ko Auzoko egitasmoaren jaiak Arrasaten

hasiera egunari Kalegoen plazan. Hamaiketakoaren ostean, herrian zehar musikaz eta dantzaz girotutako ibilbidea egingo dute; eta ondoren, Maalako parkera zabalduko da festa. Bertan tailerrak eta zenbait ekintza egingo dituzte eta haurrentzako jolas gunea ere izango da. Eguerdian Auzokoko partaideek prestatutako jatorri anitzeko jakiak probatuko dituzte eta azkenik, musika eta dantza artean, dantza afrikarren tailerrarekin eta plaza dantzen saio batekin amaituko dute jaiak.

Egur arte tailerreko ikasleen lanen erakusketa inauguratuko dute gaur

Egur arte tailerreko umeek ikasturtean zehar egindako lanak ipiniko dituzte ikusgai Kultur Etxean, gaurtik 24ra bitartean, astelehenetik larunbatera, 18:30tik 20:30ra. 4 eta 14 urte bitarteko ikasleek egindako artelanak izango dira. Txikienek oihal txiki bana jarriko dute eta gainontzekoek taldean egindako lanak. Askotariko teknika eta materialak erabili dituzte arte lanetarako: kolaxak, akrilikoak, argizaria, kartoiak... Horrekin, guztien artean baso bat osatu dute, besteak beste mota askotako zuhaitzekin.

Udako euskara ikastaroa, Debabe Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak jakinarazi du udarikastarorako matrikulazio epea zabalik dagoela, ekainaren 21era arte. Ikastaroa ekainaren 26tik uztailaren 21era izango da. Informazio gehiagorako euskaltegiara jo behar da: 943 742 731.

Txankakuaren ginkanak baditu saridunak

Txankakua merkatari elkarteak ginkana antolatu du *Elgoibarren erosteak saria du* lempaean, eta sei saltokitan egin behar ziren erosketak zozketan parte hartu ahal izateko. 5.000 euro banatu dituzte saritan, mila euroko erosketa bono bat eta 200 euroko hogeita bono. Maria Asuncion Jubetek irabazi du mila euroko saria, eta gainerako saridunak hauek izan dira: Jose Mari Mendizabal, Leire Mandaluniz, Isabel Casado, Begoña Lopez, Elene Fernandez, Ainhoa Dorado, Maria Boyer, Nora Anton De La Horra, Agurtzane Astigarraga, Maria Angeles Zabala, Ane Muro, Begoña Izagirre, Felisa Iranzo, Isabel Bermejo, Aian Barrenetxea, Mertxe Lopez, Olatz Oñederra, Mari Carmen Arizaga, Maria Angeles Sanchez eta Edurne Galdos.

Maalako 140 urteko iturriaren ura berriro ere herritarren egarria arintzeko prest

Iriondoneko tabernaren horma baten kontra zegoen txorrota bakarreko Maalako herri-iturria, baina bere lekutik kendu zuten iturri historikoa -1883. urtea baino lehenagotik dago Maalan-, eraikina bota eta etxe berriak egiteko lanak hasi zituztenean. Lanak ia bukatutakoan ipini zuten iturria bueltan bere lekuan, garbitu eta berritu ostean. Orain, urte luzetan elgoibartarrek eta bisitariak egin duten moduan berriz edan daiteke Maalako iturritik.

'Elgoibar: Iragana eta oraina' liburuan jasota dago Elgoibarko kaskoan, 1883 urte hasierara arte bi iturri egon zirela, eta horietako bat herriko errebelean zegoen Maalakoa. 2008an kaleratutako liburuan Pello Arrieta historialariak honela azaltzen ditu Maalako iturriaren ezaugarriak: "Iturria kareharlanduzko erretaula edo portada txiki bat bezala dago antolatuta, eta arte-ezaugarri neoklasikoak ditu. Frontoitxo klasiko batek ematen dio bukaera erretaulatxoari eta honen tinpanoan 1883ko data ageri da".

Lehenagotik ere bazen herri-iturria Maalan. Arrietak dionez, "badirudi, hiri-kaskoan bi iturri egon zirela 1883ko hasierara arte: San Frantzisko plazatxoan bata eta Maalan bestea. Atzera joz gero, gogorarazi behar dugu iraganean, kale (Ermuaran; San Bartolome eta Feria eta Errosarioa) eta plaza bietatik (Kalegoen, Foruen Plaza eta Kalebarren) erreten bana zihoala biztanleek urez hornitu ez ezik, hustubidea ere izateko. Ibaiak eta errekek ere betekizun hori eskaintzen zuten".

1883koa urte esanguratsua izan zen Elgoibarren iturriei dagokionez. Urte horretan erabaki zuten Kalegoen Plazan dagoen iturria ere gaur egungo lekuan jartzea. Erabakia ordukoa izan bazen ere, handik 18 urtera, zazpi iturri berri egiteko eskaria egin zuten zenbait herritarrek, eta horien artean Foruen plazakoa zegoen. Udalak bost iturri berri eraikitzea



erabaki zuen gero 1901an: Santa Anan, Foruen plazan, San Inazion, San Bartolome eta Errosario kaleen arteko kalekian eta San Frantziskon. Iturri zaharragoak ere aipatzen dituzte liburuan. Altolakoa, Txoriko etxearen kontra zegoena (1963). Metal-ur iturburuak ere ba omen zeuden garai batean Elgoibarko lurretan. "Rubio medikuak hauek aipatu zituen 1953an: Mendaro Plazako errotan, Apraizen, Altolabeaen, Kaskanten, Artetxen, Andikaon, Erreizagan eta Goenagan". Sallobente-Ermuarango Arostegi baserriko iturri ikusgarria ere herriko alkate izan zen Frantzisko Arostegik 1847an eraiki arazi zuen.

"Iturriko ur garbia, hutsa delarik handia" dio esaerak eta Elgoibarren berriz ere bada Maalan lehengo iturritik ur garbia edateko aukera.

EAJk irabazi du Elgoibarren, eta Mendaron gehiengo osoa lortu du EH Bilduk

ELGOIBAR

EAJk zortzi zinegotzi izango ditu Elgoibarko Udalean eta EH Bildu izango da bigarren indarra zazpi zinegotzirekin. Podemosek ez du ordezkariarik lortu, eta PSE-EEk bi zinegotzi izango ditu.



Maialen
Gurrutxaga
EAJ-PNV



Ion
Zubiaurre
EAJ-PNV



Andrea
Arriola
EAJ-PNV



Ricardo Luis
Astigarraga
EAJ-PNV



Maria Pilar
Iranzo
EAJ-PNV



Iñigo
Loiola
EAJ-PNV



Atsegin
Uzuriaga
EAJ-PNV



Aitor
Iriondo
EAJ-PNV



Aitziber
Aranberri
EH Bildu



Iñaki
Lazarobaster
EH Bildu



Eneritz
Azkue
EH Bildu



Jorge
Hernando
EH Bildu



Nagore
Cid
EH Bildu



Jose Luis
Mulas
EH Bildu



Jone
Olaizola
EH Bildu



Ariana
Nogales
PSE-EE



Aser
Araujo
PSE-EE

EAJk irabazi ditu udal hauteskundeak Elgoibarren 2.267 botoekin (botoen %42), eta horri esker, lehendik zituen zortzi zinegotzietan eustea lortu du. Dena dela, 2019ko udal hauteskundeekin alderatuta, behera egin

du boto kopuruan, eta 362 boto gutxiago zenbatu dituzte jeltzaleek. Bigarren indarra EH Bildu izan da Elgoibarko Udalean, 2.055 botoekin (botoen %38), eta zazpi zinegotzi izango ditu. 2019ko emaitza oso antzerakoa

lortu du ezker koalizioak, izan ere, hamar boto baino ez ditu galdu. Herritarren parte-hartzeak %4,97 egin du behera, eta bi alderdiek aipatu dute abstentzioak eragin zuzena izan duela emaitzetan.

PSE-EE alderdiak ere behera egin du boto kopuruan, baina, aldiz, gora egin du boto portzentajea %9,60tik %9,81era, eta horri esker, zinegotzi bat gehiago lortu du. Datorren legealdian, beraz, bi zinegotzi izango dituzte Elgoibarko Udalean. Podemos izan da udal hauteskundeetan kaltetuena, orain arte zeukan zinegotzi bakarra galdu duelako. Koalizio moreak 253 boto eskuratu ditu (botoen %4,78),




duela lau urte baino 89 gutxiago, eta hamabi botorengatik ez du lortu ordezkariarik. PP alderdiak ere ordezkariarik gabe jarraituko du Elgoibarko Udalean.

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako ere EAJk jaso du babes handiena Elgoibarren, baina lurraldeko joera nagusitu da herriko emaitzetan. EAJk lau puntutan egin du behera, %45,35etik %41,44ra, eta Bilduk sei puntutan egin du gora. Gipuzkoari dagokionez, EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak, eta bost eserleku atera dizkio EAJri. 22 lortu ditu EH Bilduk, 17 dauzka EAJk; zazpi PSE-EEk; hiru PPK eta Elkarrekin Podemosek, bi.

ELGOIBARKO DATUAK

- Hautesle-errolda: 8.541
- Emandako botoak: 5.344
(%62,57-ko parte-hartzea,
2019an baino %4,97 txikiagoa).
- Zuriak: 64
- Baliogabeak: 54
- Abstentzioa: %37,43

Elgoibarko arderdiak	2019	2023
EAJ-PNV	2.629	2.267
EH Bildu	2.065	2.055
PSE-EE	560	519
Elkarrekin-Podemos	342	253
PP	179	132



MENDARO

Gehiengo osoarekin alkatetza eskuratu du EH bilduk, eta bost eserleku lortu ditu Mendaroko Udalean. EAJk lau zinegotzi izango ditu, eta PSE-EE ordezkariarik gabe geratu da.

Orain dela lau urte bezala, EH Bilduk lortu ditu boto gehien Mendaron, baina orduan ez bezala, aurtengoan gehiengo osoa eskuratu du. 446 boto jaso ditu ezker koalizioak, botoen % 48,47, eta emaitza horri esker, bost eserleku izango ditu Udalean. Hortaz, alkatetza lortu du EH Bilduk, eta Enetz Ezenarro izango da alkate datorren legegintzaldian. EAJk 66 boto gutxiago eskuratu ditu, eta bigarren indarra izango da 380 botorekin. Lau zinegotzi izango ditzute jeltzaleek Mendaroko Udalean. PSE-EEK 77 boto lortu ditu, eta orain arte zeukan ordezkaria galdu du Udalean. Mendaroko Udala 11 zinegotzi izatetik bederatzira pasatu da legealdi berrian.

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako, bestalde, EAJ-k jaso du babesik handiena Mendaron, eta 404 boto eskuratu ditu. EH Bilduk 356; PSE-EEK 82 eta Elkarrekin Podemosek, 53.



Enetz Ezenarro
EH Bildu



Borja Rodriguez
EH Bildu



Sonia Garcia
EH Bildu



Javier Muñoz
EH Bildu



Dorleta Lazarobaster
EH Bildu



Iñaki Agirre
EAJ-PNV

Elgoibarko arderdiak	2019	2023
EH Bildu	412	446
EAJ-PNV	451	380
PSE-EE	92	72



Nerea Isasi
EAJ-PNV




Nuria Guerola
EAJ-PNV



Amaia Urra
EAJ-PNV

MENDAROKO DATUAK

- Hutesle-errolda: 1.442
- Emandako botoak: 938
(%65,51ko parte hartzea, 2019an baino, %4,32 txikiagoa).
- Zuriak: 22
- Baliogabeak: 18
- Abstentzioa: %34,49



DEBABARRENA

Mutrikun, Deban, Mendaron eta Soraluzen nagusitu dira ezker abertzalekoak. Elgoibarren eta Mallabian EAJ izan da alderdi bozkatuena eta Eibarren eta Ermuan PSE-EE.

ERMUA (17)

PSE-EE (6)
EH Bildu (4)
EAJ-PNV (3)
Elkar.-Pode. (2)
PP (2)

DEBA (13)

EH Bildu (6)
EAJ-PNV (6)
Elkar. Orain Deba (1)

MUTRIKU (13)

EH Bildu (7)
EAJ-PNV (5)
Berdeak-Equo (1)

SORALUZE (11)

EH Bildu (6)
EAJ-PNV (3)
PSE-EE (2)

MALLABIA (9)

EAJ-PNV (5)
EH Bildu (4)


EIBAR

PSE-EE (8)
EH Bildu (6)
EAJ-PNV (6)
Elkar.-Pode. (1)



Udal hauteskundeak 2023 - Debabarrena

Boto kopurua - Estruktura: %100,00



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK


EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Gipuzkoan eta EAJk baino bost batzarkide gehiago izango ditu.

EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Gipuzkoan. Gorakada nabarmena izan du ezker koalizioak, eta 22 eserleku lortu ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietan, EAJk baino bost gehiago. Hamazazpi bazkide lortu ditu EAJk, duela lau urte baino hiru gutxiago. PSE-EEK zazpi ditu; PPK, hiru; eta Elkarrekin Podemosek, bi.

Abstentzioak gora egin du nabarmen, eta parte hartzea %59,93koa izan da. Hau da, %6,72 txikitu da 2019ko bozen aldean. 556.201 boto emaile zeuden deituak udalerrietako eta lurraldeetako zinegotzi eta batzarkideak aukeratzeko; bada, 333.123k eman dute botoa Batzar Nagusietarako.

BATZAR NAGUSIEN OSAERA

- Emandako botoak: 333.123 (↓%6,72)
- Abstentzioa: 222.730 (%40,07)
- Zuriak: 5.941 (%1,80)
- Boto baliogabeak: 4.097 (%1,23)



EMAITZAK: 51 BATZARKIDE

- EH Bildu: 22 (↑5), 120.578 boto (%36,64)
- EAJ-PNV: 17 (↓3), 105.437 boto (%32,04)
- PSE-EE: 7 (↓2), 51.591 boto (%15,67)
- PP: 3 (↑2), 20.574 boto (%6,25)
- Elkarrekin-Podemos: 2 (↓2), 21.283 boto (%6,46)
- STOP: 0, 1.858 boto (%0,56)
- EB-AZ: 0 (-), 1.764 boto (%0,53)



Joseba Olazabal, Naia Aizpurua, Dorleta Lazarobaster eta Ainara Argoitia.

“Komunitatea sendotzeko pausoak ematea litzateke Anjel Bazterretxeari egin diezaiokegun omenaldirik onena”

Ainara Argoitia

AINARA ARGOITIA ETA NAIA AIZPURUA

Anjel Bazterretxeari buruzko
ikus-entzunezkoa sortu duten lantaldekoak

✍️ Ainhoa Andonegi

54 urtez Mendaroko abade izan zen Anjel Bazterretxeak (Mutriku, 1936 - Mendaro, 2019) Mendaro herriaren alde egindako lana aitortzeko bi hankako proiektua ondu du Elgoibarko Izarrak, Mendaroko Udalaren babesarekin. Batetik, argazki erakusketa osatu dute haren artxiboko zenbait argazkirekin, eta bestetik, eta artxibo-grafiko hori oinarri hartuta, Bazterretxeari buruzko ikus-entzunezkoa sortu dute, 'Anjel Bazterretxea, herrigintzan akuilu eta hauspo' izenburukoa. Gaur, hilak 2, zabalduko dute erakusketa, jubilatuen ondoko lokalean, 18:00etan, eta ekainaren 7an (eguztana) aurkeztuko dute ikus-entzunezkoa San Agustin kulturgunean, 18:30ean.

Zerk eraman zaituzte proiektu honetan parte hartzera?

Ainara: Nik uste zor halako bat sentitzen genuela Anjelekin proiektu honetara batzeko. Lagun izan genuen Anjel, kulturgintzan eta herrigintzan konplize, eta nire kasuan, kolaboratzaile fina eta informazio iturri agortezina ere bai kazetaritza lanerako. Gizon jantzia zen, herrian gertatzen zena dokumentatzeko kezka berezia zuen, eta ikusgarria da urteetan osatu zuen artxibografikoa. Gaur beste argazki-kamera ez ziren garaian, zientoka argazki egin zituen, baina ez afizio hutsagatik. Herri baten sortze prozesu osoa eta Mendaroren historian mugarri izan diren gertaerak ere erretratatu zituen, bai eta herriko jendea ere, eta argi ikus daiteke haren lanean nahi bat: komunitate bat sortzeko gogoia, elementu kohesionatzaileetan azpimarra jarrita. Esango nuke hori izan zela bere ekarpen handiena.

Sentitzen nuen zoriekoa nintzela Anjelen artxibo zati bat ezagutzeagatik eta hein batean amets egiten nuen argazki eta diapositiba haiek guztiak behar bezala dokumentatuta eta herritar

guztion eskura jartzearekin, iruditzen zitzaidalako izugarriko ondarea zela, Mendaroko historiaren parte handi bat zegoelako jasota. Esan ere egin izan nion. Halakotan 'hartu eta eraman behar duzuen' erantzuten zuen beti, berezkoa zuen eskuzabaltasunez. Hil-hurren zela jakin nuen artxibo haren zati bat emana ziela Dorleta Lazarobasterri eta Edu Zubiaurreri. Biak jarri ziren nirekin harremanetan, interesa izango nuelakoan, eta behingoz gai hari serio heltzea erabaki genuen. Sasoi hartan, argazki haietako batzuk digitalizatzeari eta sare sozialen bidez zabaltzeari ekin zion Joseba Olazabalek, baina esango nuke denok pentsatzen genuela Udalaren arduraren zela behar zela hura. Hala pentsatu genuen guk behinik behin, eta Udalean ordezkariak duten hiru alderdiengana jo genuen Joseba, Dorleta eta hirurok proposamen horrekin. Ondo iruditu zitzaien.

Naia: Ainarak proposatu zidan niri hemen sartzea eta ilusio eta gogo handiz hartu nuen, iruditu zitzaidalako aukera polit bat izan zitekeela Mendaroren alde horrenbeste lan egin zuen gizona gogoratzeko ekimenean nire alea jartzea. Umetan ezagutu nuen nik Anjel. Ez nuen aparteko harremanik izan berarekin, baina banekien herrian estimu handia izan ziola jendeak eta askoren oroimenean zegoela, eta orain jabetu naiz benetan zenbat maite izan zuen jendeak.

Non du abiapuntua proiektuak?

Ainara: Udaletxean ordezkariak zuten hiru alderdiengana jo genuen Anjelen artxiboa digitalizatzeko eta dokumentatzeko eskatzera eta Udalak enpresa bat kontratatu zuen artxiboa digitalizatzeko. Lan hori eginda dago. Guk herritarren eskura jarri nahi genituen argazkiak, bistan, eta ahal zela dokumentatuta, baina digitalizatzea zen aurreneko pausoa eta pozik eta eskertuta ere bagaude Udalak pauso hori eman zuelako. Dorleta Lazarobasterrek eman zigun hurrengo pausorako bultzada, bera izan baita proiektu honen sustatzaile nagusia. Egun batean deitu zidan ea argazki haiekin bideoen bat osatuko ote nuen galdezka. Bildu ginen, eta

"Konpromiso handiko gizona izan zen Anjel, printzipio sozial eta politiko sendoko militantea, eta ezer ez zegoen lekuan proiektuak sortzeko bidea egin zuena"

erabaki genuen interesgarriagoa izango zela argazki haiei testuinguru bat ematea, eta haiek oinarritzat hartuta, Anjelek Mendaroko herriari egindako ekarpena zein izan zen kontatzea, herritarren ahotik. Eta egun gutxiren buruan, proiektu hari helduko ote genion esanez etorri zitzaidan berriro, eta jarri ginen buru-belarri lanean. Proiektua Elgoibarko Izarratik gauzatu dugu, eta Mendaroko Udalak finantzatu du.

Bi hankako proiektua gauzatu duzue. Nortzuk jardun zarete egiteko horretan?

Ainara: Bai, batetik erakusketa bat osatu dugu Anjelen artxiboko 22 argazkirekin, eta



bestetik, ikus-entzunezko bat sortu dugu. Anjel ondo ezagutu zuten hamazortzi herritarren testigantzetan oinarrituta ahalegindu gara Anjelek kulturetzan eta herrigintzan egindako ekarpena azaleratzen. Elgoibarko Izarrak hartu du proiektu osoaren ardura, eta lau lagunek parte hartu dugu: Naia Aizpuruak, Galder Zabalak, Asier Orbeak eta neuk. Hala ere, aipatu nahi nituzke Aitor Etxeberria, Joseba Olazabal, Ina Iriondo eta Maraca Diablo taldea ere, eskatutako guztian laguntzeko gertu izan ditugulako oraingoan ere. Dokumentalerako propio grabatu dute Maraca Diablokoek Inak berak sortutako *Anjel* kantua, Etxeberriak lagundu digu erakusketa atontzen eta Olazabal izan da gure makulua prozesu osoan.

'Anjel Bazterretxea, hauspo eta akuilu' jarri diozue izenburua ikus-entzunezkoari, herrigintzan egin zuen ekarpenari erreferentzia eginda. Zer izan zen Anjel Bazterretxea Mendaron?

Ainara: Hil berritan ere esaldi horixe eraman genuen aldizkari honetan titularrera. Batari eta besteari galdezka jardun ginen orduan, eta denek nabarmendu zuten gauza bera: Mendaron gauza asko ez zirela posible izango bere garaian Anjel Bazterretxearek gabe. 54 urtez izan zen Mendaroko abade eta irekiera bat ekarri zuen. Herriarekin engaiatutako elizan sinisten zuen, justizia soziala bultzatuko zuen elizan, eta bere pentsakeragatik eta izaeragatik jende askorengana iritsi zen, izan eliztarrak edo ez. Gizon jantzia zen, gertukoa eta eskuzabala, eta hori nabarmentzen dute elkarrizketatu guztiek, baina gehiago ere izan zen. Konpromiso handiko gizona izan zen Anjel, printzipio sozial eta politiko sendoko militantea, eta ezer ez zegoen lekuan proiektuak sortzeko bidea egin zuena, bere ezagutza eta tenplea, eta eskura zituen baliabide guztiak jarrita. Horregatik hauspo eta akuiluarena, bietatik izan zelako. Izan zen sustatzaile, xaxatzaile, laguntzaile eta babesle ekimen eta proiektu askotan.

Zer egin zaizue deigarriena?

Ainara: Ezberdinak batu eta komunitatea egiteko zuen aparteko gaitasun hori eta instituzio katoliko hertsiki bateko parte izanda zuen pentsakera askea nabarmenduko nituzke. 2016an aldizkari honetarako eman zigun elkarrizketak (2016-10-28) markatu ninduen ni. Gogoan daukat *Abade izatea ez da mundutik ihes egitea* titularra eraman genuela azalera, eta esango nuke leial izan zitzaiola



"Busti egin zen beti, eta horrexegatik izango dira gustuko izan ez zutenak ere, baina uste dut eskertu ere horixe eskertzen diotela gehien mendaroez Anjel Bazterretxeari"



horri bera. Busti egin zen beti, eta horrexegatik beharbada izango dira gustuko izan ez zutenak ere, baina uste dut eskertu ere horixe eskertzen diotela gehien mendaroez. Guruzpe kultur elkartearen jardun zen buru-belarri, bai eta herria, gau eskolak eta ikastola sortzeko prozesuetan ere; askatasuna, aukerak eta konfiantza eman zizkien gazteei eta bere aterkipean abiatu ziren Mendaron emakumeentzako ahalduntze tailerrak ere. Dokumentaleko elkarrizketatuetako batek, Joseba Longartek, zioen herria egin zuela eta kultura eta askatasuna eman zizkiela mendaroez, nor izateko. Gauza handia da hori.

Naia: Elkarrizketatuek kontatzen duten gauza asko berriak zitzaizkidan niri, baina balio izan didate Anjelen inguruan nuen irudia berresteko. Sekula ez naiz eliztarra izan eta ez nuen aparteko harremanik izan berarekin, baina eskolako lagunek oso gertukotzat zutela badakit. Horrexegatik, lagunei entzundakoengatik, estimuan neukan nik ere. Eta orain, testigantza hauek guztiak entzunda, oraindik eta garbiago daukat zer nolako gizon garrantzitsua izan zen Mendarorentzat eta zer ekarpen egin zion gure herri honi.

Zer egin zaizue nekezen?

Ainara: Laburtzea, eta hor Naiak egindako lana azpimarratuko nuke. 48 bat ordu grabatu ditugu guztira, zatitxo bat da jendeak ikusiko duena. Solastu eta Anjelen irudi bat sortu dugu entzundako guztitik, baina hori neurrira ekartzea eta jostea Naiaren lana izan da hein handi batean. Anjelekin izan genuen harremanegatik ardura bereziz bizi izan dugu lan hau eta espero dugu jendearen gustukoa izatea emaitza. Askotan gertatzen den moduan, berandu dator lan hau, baina badator behintzat, akordua merezi duten beste asko halakorik gabe joan direlako Mendaron. Espero dugu balioko duela jendeak akorduan gorde dezan Anjel.

Dokumentalerako elkarrizketatu guztiei egin

genien galdera bera: Uste duzu Mendarok eskertu diola behar beste Anjeli herriaren alde egin zuen lana? Galdera horren harira Alaitz Vivesek emandako erantzunarekin gelditu nintzen ni. Berak zioen pertsonak gogoratzen ditugunean badugula joera denak berdintzekoa, eta horregatik-edo, aitortza publikoak egiten ditugunean ere joera izaten dugula loreak eskaintzeko, plakak jartzeko edota kaleei omenduen izenak jartzeko, baina interesgarriagoa dela omenduak egin duen hori berreskuratzea, hark hasitako biderei segitzea. Ildo horretan uste dut Anjelen artxiboa dokumentatu eta eskuragarri jartzea, eta nola ez, herritarren artean zubiak eraikitzea eta komunitatea eta herri nortasuna sendotzeko urratsak egitea dela egin geniezaiokkeen omenaldirik onena.

'HERRI BAT, MILA OROITZAPEN'
argazki-erakusketa jubilatuen lokalean

Ekainaren 2tik 8ra
Aste barruan

Goizez: 10:00-13:00

Arratsaldez: 17:00etatik 20:00etara

Zapatu-domeketan: 10:00-13:00

'ANJEL BAZTERRETXEA:
HERRIGINTZAN, HAUSPO ETA AKUILU'
ikus-entzunezkoaren emanaldia

Ekainaren 7an,
San Agustin kulturunean, 18:30ean
(Sarrerak Morroskillon)

TRINITATEAK ASTEBURUAN

Trinitate jaiak hemen dira ate joka eta dena prest dago Elgoibarren zein Mendaron. Asteburuan ekintza ugari izango dira Elgoibarko kale eta plazetan eta Mendaroko Trinitate ermitaren inguruan. Orriotan jaso ditugu asteburuko ekintza aipagarri batzuk.

✍ Irati Agirreazaldegia

ELGOIBAR

ELGOIBARKO BASERRIETAKO SAGARDO LEHIAKETA



Zazpiki elkarteak antolatuta, Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa egingo dute aurten ere zapatuan. Elgoibarko baserri askotan egiten dute sagardoa, eta ekimen honi esker, sagardo hori ezagutzera emateko aukera izaten dute baserritarrek. Aurten baserri hauek jarriko dute beren Sagardoa herritarren eskura: Armazio, Upaiegixiki, Antsolabazterra, Amuskategi, Zulueta Bekoa, Olazarraga, Azkue, Urtegi eta Marigorta. Sagardoa desberdina izan ohi da baserri batetik bestera, besteak beste sagar motak eta nahastea desberdinak izaten direlako eta kupelak eta fermentazioak ere badutelako zerikusirik.

Aita Agirren sagardoa probatuko duten herritarrek, bi euroan erosiko dute edalontzia eta nahi beste sagardo edateko aukera izango dute. Txartel bana izango dute sagardoei puntuazioa emateko, eta puntu gehien batzen dituenak irabaziko du lehiaketa. Irabazleak aginte makila jasoko du aurreko urteetako irabazleen zerrendara zinta bat gehiago batuta aurtengo baserri irabazlearen izenarekin. Baserrian gordeko du hurrengo urtekoari erreleboan emateko.

TRINITATEETAKO AZOKA BEREZIA



Debemen elkarteak Udalaren eta Elgoibarko landa auzoetako bizilagunen laguntzarekin azoka berezia prestatu du zapatarako. 9:30etik 14:00etara Elgoibarko baserrietako produktuak salgai egongo dira Lekuederren eta 17:00etara bitartean luzatuko dute Aita Agirreko ganadu erakusketa. Garaiko produktuak Lizundiatxabola, Basartesoeta, Madarizurieta, Mintxeta, Zortziko eta Lizagasagarretik eramango dituzte.

Ganadu erakusketan Elgoibarren hazitako 80 bat buru izango dira: Pirenaika arrazako behiak Aiaitxiki, Berdezkunde, Garate eta Zulueta Bekoak eta Orubeko Limusinak, Enkarterrialdeko astoak (Iriartetxeberria), zaldi arabiarra eta espafiola (Juaristi), Euskal Herriko mendiko zaldiak (Artesoro), behorrak (Belaustegi), poniak (Irunagasoro), pottokak (Soroeta), moxalak (Armaitegieta-Erdikoa), sasi ardiak (Irunagasoro), ardi mutur gorriak (Mintxeta), ahari eta ardi latxak (Madarizurieta), ahuntz azpi gorriak (Irunagasoro) eta ahuntz mestizoak (Urruzuno).

Bestalde, kalitatezko produktuak dastatzeko aukera ere izango da azokan, Lumagorri oilaskoa eta Basatxerri txerrien saiheskia eta hirugiharra.

NAGUSIEN DANBORRADA

Atabal elkarteak antolatzen du nagusien danborrada gauerako eta aurten, guztira, 270 bat lagunek hartuko dute parte danborra edo kupela jotzen, sukaldari, mikelete, gastadore, abanderatu edo artillero postuetan eta bandakoak, noski, beraiekin. 50 partaide berri izango dira aurten, gehienak gazteak.

Iaz bezala, aurtengo danborradan, ez da karrozarik izango, antolatzaileen esanetan, lan asko eskatzen duelako eta jendeak gehiago gozatzen duelako danborradako beste postuetan. Generalak, baina kalesan joango dira. Bestalde, jakinarazi dute, arkumeak erretzeko karroza berria egin dutela aurtengorako, baita ere



animalien legea dela-eta zaldiak danborradan irten daitezzen baimen bereziak eskatu behar izan dituztela ere esan digute

Danbor, kupel eta bandaren doinuez gain izango da bestelako soinurik ere. Kainoiaren erreplikarekin eta armekin danbatekoak botako dituzte eta baita koloretako txapligoak ere.

UMEEN DANBORRADA



Domeka eguerdian danborradan umeek hartuko diete helduei erreleboa. Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleak arituko dira danbor eta kupelei eraginez bandaren doinuak lagun. Beraiekin inudeak, artzainak eta marrazki bizidunetako film bat irudikatuko duen karrozako umeak egongo dira, baita musikoterapiako ikasleak ere, iaz baino gehiago. Gutxi gorabehera 265 umek osatuko dute danborrada.

ARTISAU AZOKA



Ohiturari jarraituz domekan 10:00etatik 14:30era artisau azoka izango da Leku Ederren. Askotariko lanak ikusteko eta erosteko aukera izango da: bitxiak, txotxongiloak, xaboi naturalak, forja artistikoa, otarrak, diseinua, serigrafia eta larrua, beira zein ehunekin eginak. Elgoibarkoak lau izango dira azokan: Darama (Amalur Urresti), Magi (Amaia Erkizia), Xarlem (Maialen Astigarraga eta Eider Lopez) eta Zugehini (Nekane Altube).

MENDARO

JAIK ERMITA INGURUAN

Mendaron Trinitate ermita izanik, haren inguruan ospatzen dituzte jaiak. Iaz jaiak antolatzen aritu zirenek aurten ere heldu diote lanari eta ohiko ekintzak prestatu dituzte. Izan ere, Bizi Poza txarangak kalejira bidez jaietara erakarriko ditu herritarrak ostiralean eta larunbatean zuhaitza jasoko dute ermita ondoan



eta jai giroa kanpai eta txapligoen soinu bidez jantzi. Baina igande eta astelehenerako gordeko dituzte ekintza nagusiak.

Trinitate egunean txistularien kalejirarekin ermitara gerturatuta meza izango da bertan elizako abesbatzaren eta Ameikutz musika eskolakoen parte-hartzearekin. Meza ostean, berriz, herri kirol erakustaldirik ez da faltako. Udane Ostolaza arituko da harria jasotzen eta

aizkoran Ugaitz Mugertza eta Eneko Otaño. Hori guztia Saioa Lizarralde eta Lean Esnaola trikitilarien doinuek jantziko dute amaieran.

Jaiak ermitan izanik Trinitate txiki egunean ere meza egingo dute bertan eta ondoren Ikastolako umeak bertsotan arituko dira. Azkenik, bezperan bezala Lizarralde eta Esnaola trikitilariak emango diete errematea aurtengo jaietara.

Elgoibar

EKAINAK 2, BARIKUA

19:00 Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasturte bukaerako kontzertua. Maalako parkean

EKAINAK 3, ZAPATUA

9:00-14:00 Kaleko Margo Erakustaldia. Kalegoen plazan. Urte hauetan Elgoibarko Kaleko Margo Lehiaketan parte hartu duten margolari batzuk koadroak margotzen egongo dira.

10:00-14:30 Herriko baserrietako produktuen salmenta. Aita Agirre plazan.

10:00-17:00 Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa, Aita Agirre plazan.

11:00 Kalitatezko produktuen dastaketa (Lumagorri oilaskoa eta Basatxerri txerrien saiheskia eta hirugiharra).

Antolatzaileak: Elgoibarko Udala eta Debemen elkarteak.

Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa eta dastaketa, Zazpiki Kultur Elkartek antolatuta. Lekuederreko karpan.

12:00 I. Bereziartua Musika Eskolako trikitilarien kalejira.

18:00 Mauxitxa Txarangaren Kalejira, Mauxirekin eta Kiribilekin, Kalegoen plazatik hasita.

23:00 Nagusien danborrada, Udal Musika Bandak lagunduta, Kalegoen plazan.

EKAINAK 4, DOMEKA

Trinitate eguna

9:00 Diana, Udal Txistulari Taldearekin.

10:00-14:30 Artisau azoka, Lekueder parkean.

11:00 Meza, San Bartolome parrokiari. Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

12:00 Haurren danborrada, Inazio Bereziartua Musika eskolara antolatuta.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko Dultzaineroekin.

Mendaro

EKAINAK 2, BARIKUA

19:00 Bizi Poza txarangaren kalejira.

EKAINAK 3, ZAPATUA

17:00 Zuhaitza jasotzea, kanpai jotzea eta txapligoak.

EKAINAK 4, DOMEKA

Trinitate eguna

10:00 Mendaroko txistularien kalejira.

11:30 Meza nagusia, elizako abesbatzaren eta Ameikutz musika eskolakoen parte-hartzearekin.

12:30 Herri kirolak. Udane Ostolaza harria jasotzen eta Ugaitz Mugertza eta Eneko Otaño aizkoran.

Ondoren, Saioa Lizarralde eta Lean Esnaola trikitilariak.

EKAINAK 5, ASTELEHENA

Trinitate txiki eguna

11:00 Meza, Trinitateko basilizian.

12:00 Ikastolako haurren bertso-saioa.

Ondoren, Saioa Lizarralde eta Leandro Esnaola trikitilariak.

Oharra: Gaueko taxi zerbitzua egongo da 01:00etatik 08:00etara, herri barruan, doan. Txaridunako errotondan. Zain daudenen ilara ordena errespetatuko da.

Literatura izango da aurten 'Euskara ala ezkara' jardunaldiko gaia

Zelakoa da euskal irakurlea? Zein gara eta zenbat? Zelakoa da gure lengoaia literarioa? Nondik edaten dugu? Zer itzultzen dugu eta zer ez? Zergatik? Nola sortzen da irakurlea? Zelan ematen da literaturzaletasunaren transmisioa? Galdera horiei eta antzerako beste batzuei erantzungo diete aurten *Euskara ala ezkara literaturan* jardunaldian". Idazleen sormen lanekin gozatzeko, literatur munduko eragile batzuen azterketak eta gogoetak entzuteko, literaturari lotutako gai jakin batzuen gainean hausnartzeko, edota, euskal literaturaren munduarekin gozatzeko antolatatu dute jardunaldia Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean, IMH Campus eta DanobatGroupen laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Andu Lertxundik, Harkaitz Zubirik, Iñigo Aranbarrik, Miren Amurizak, Uxue Alberdik, Katixa Agirrek, Arrate Hidalgo, Jasone Osorok, Asier Serranok, Irati Jimenezek, Oihana Aranak, Leire Vargasek eta Iban Urizarrek parte hartuko dute. Urriaren 8an (zapatua) izango da jardunaldia, 9:30etik 14:30era. Informazio gehiagorako nahiz izena emateko hiru bide daude: Internetez, Elgoibarko Izarraren webgunean sartuta edota elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita edota 943 741626ra deituta.

'Mi pequeño gran samurai' dokumentala emango dute Mendaron, domekan, hilaren 4an

Ekai Lersundi bere buruaz beste egin zuen Ondarruko gazte transexualaren inguruko 'Mi pequeño gran samurai' dokumentala emango dute domekan Mendaroko San Agustín kulturgunean, 18:00etan. Saioan, Lersundiren gurasoek eta Naizen elkarteko beste familia batek ere parte hartuko dute

Alvaro Arrizabalaga EHUKo arkeologia irakasleak zabalduko du Mendaron arkeologiari buruzko zikloa, hilaren 9an



Morkaiko Leizarpe Espeleologia Taldeak eta EHUK arkeologiari buruzko zikloa antolatu dute Mendaron, Udalaren laguntzarekin. Lau hitzaldi izango dira guztira, eta horietako bi, ekainean. Aurrenekoa ekainaren 9an izango da eta Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasle eta ikertzaileak emango du, gaztelaniaz. *El Valle del Deba y Mendaro durante el Paleolítico* izenburua izango du. Ekaineko bigarren hitzaldia hilaren 16rako lotu du. Mari Jose Iriarte-Chiapusso EHUKo irakasleak emango du: *Cambio climático durante la Prehistoria*. Bi hitzaldiak udaletxeko udalbatza aretoan izango dira, 19:00etan. Irailerako iragarri dituzte zikloko beste bi hitzaldiak.

Mendaro dantzan urte bukaerako jaialdia egingo dute gaur, barikua



Dantza modernoko ikasleek Mendaro dantzan ikasturte amaierako jaialdia egingo dute gaur, 21:00etatik aurrera, frontoian. 7 urtetik 15 urte bitarterako 60 ikasle inguruk parte hartuko dute guztira eta bost taldetan banatuta dantzatuko dira: inurriak, izarrak, tximeletak, lehoiak eta Oinutsik taldea. Dantza eskolatik jakinarazi dute estilo urbanoko dantzak izango direla.

Neurri eta Salento Gelati taldeak Kopako txapelkun, eta finalerako sailkatu da Gaurve

Irabazitako garaikurrak gordetzeko bitrina edo beira-arasa handitzeko beharra izango du aurki Sanlok. Gipuzkoako Kopa txapelketa bat baino gehiago irabazteko aukerak zituzten Sanloko eskubaloit taldeek, eta zituzten hiru aukeretatik bi baliatu zituzten, joan den asteburuan. Batetik, kadete nesken Neurri taldeak 29-20 irabazi zion Bera Berari, eta titulua lortu dute. Bestetik, Salento Gelati taldeak ere irabazi du Gipuzkoako Kopa. Azken jardunaldian 33-28 irabazi zion Aiala Zarautz taldeari. Infantil nesken Tecnifuelle taldeak ere jokatu zuen Kopako finala, baina 19-18 galdu zuten Saieko taldearen aurka jokaturako neurketa. Senior emakumezkoen Gaurve Asesores taldeak ere izango du Gipuzkoako Kopa irabazteko aukera, Bera Bera



taldearen aurka Olaizagan jokaturako partida 22na berdindu ostean, finalerako sailkatu baitira. Lezon jokaturako dute finala, zapatuan, 19:30ean, eta Eibar Eskubaloia taldea izango dute aurkari.



Estanis Mugerza Athleticera eta Asier Diez Realera

Club Deportivo Elgoibarreko bi jokalarik gaztetxo fitxatu dituzte Realak eta Athleticetik. Talde zuri-gorriak Estanis Mugerza (Elgoibar, 2009) fitxatu du Athleticeko kadete mailako taldean aritzeko. Talde zuri-urdinak, berriz, Asier Diez (Elgoibar, 2011) fitxatu du Realeko Infantil Txiki mailako taldearekin jokatzeko. Elgoibarko taldeetik adierazi dute berri pozgarria eta garrantzitsua dela klubarentzat, harro egotekoa, eta onena opa diete bi jokalarik gaztetxo horiei.

Urpekaritza bataioa, bihar

Urbizi urpekarikien Elgoibarko elkarteak eta Udalak hasiberrientzako urpekaritza bataioa antolatu du zapatarako, ekainaren 3rako. Olaizagako igerilekuan egingo dute, 9:30etik 12:00etara. Urpekaritza modu errazean eta arriskurik gabe erakustea da

Urbizik antolatutako jardueraren helburua. Kiroldetik bazkideek ez dute ordaindu beharrik izango, baina bazkide ez direnek igerilekuan sartzeko sarrera ordaindu beharko dute. Izena emateko telefono zenbakia: 619 423 073.

Elgoibarko Enduro proba jokatu dute domekan, Urruzuno bailaran

Euskadiko txapelketarako puntuagarria den Elgoibarko Enduroa jokatu dute domekan, ekainaren 4an, Urruzuno bailaran. Ohikoa den moduan, bi zati izango ditu probak. Batetik, bost minutuko erlojuaren aurkako proba bat, Albitzurin; eta, bestetik, 30 kilometro inguruko ibilbidea Urruzuno bailara eta Azkarate gaina arteko mendiko ibilbideetan barrena. Antolatzaileek aurreratu dutenez, euren onena eman beharko dute moto gidariak ibilbidean prestatu dizkieten oztopoak gainditzeko, eta emozioz beteriko giroa egongo dela agindu diete zaleei. Lehen pilotua 9:45ean irtengo da, eta sari banaketa ekitaldia 15:00etan egingo dute. Parte hartzaileen artean Urnobitza taldeko hiru kide egongo dira: Igor Iriondo, Eneko Sanz eta Ander Aranzabal. Gainerakoan, Euskal Herriko Enduroko gidari onentsuenak ikusteko aukera izango da Elgoibarren eta emakumezkoetan Espainiako gidari onenarikoa den Sandra Gomezek ere hartuko du parte. Proba ikustera doazenek Albitzuri industriagunean aparkatu ahal izango dute autoa eta hortik oinez joanda



 Ane Galindo

bost minutura egongo da moto gidariak gertutik ikusi ahal izateko zirkuitua. Ikusteko guneak seinaleztatuta egongo direla jakinarazi dute, eta koordinadak eta mapak ere banatuko dituzte. Urnobitzak antolatu du Elgoibarko Enduro txapelketa, Gipuzkoako eta Euskadiko motoziklismo federazioen laguntzarekin eta Motos Ion eta Elgoibar Motorren babesarekin, besteak beste.

Aiastiako bolatokian erabakiko da Gipuzkoako txapelketa, bihar



Jardunaldi bakarra falta da Gipuzkoako 52. hiru txirlo bola joko txapelketa bukatzeko eta bolari sanmigeldarrak sailkapen nagusiko lehen postuetan ailegatuko dira etxean jokatu duten tiraldira. Aiastiako bolatokian jokatu dute azken jaurtialdi erabakigarria, hamargarrena, bihar, ekainaren 3an, 17:00etatik aurrera. Une honetan San Migel taldeko bost bolari daude aurreneko 11 sailkatuen artean: Jabier Osoro (4. postuan), Angel Ibarluzea (6), Unai Loiola (8), Imanol Osoro (10) eta Xabier Loiola (11). Asola Berri B taldeko Pedro Gomez bolaria dago lidergoan, 35 punturekin. Puntu kopuru bera du bigarren sailkatuak, San Andres A taldeko Lander Odiagak eta 31 puntu Asola Berri A taldeko Bittor Astigarragak. Jabier Osorok 29 puntu ditu. Lasturreko bolatokian jokatu zuten bederatzigarren tiraldian UDA taldeko Juan Bengoa gailendu zen (ondoko irudian lehen sei sailkatuak Lasturren).

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago.

Orduka, gauzez ere bai. Titulua daukat.

631 125 127

Adinekoak zaintzeko prest nago.

Erizain laguntzaile titulua daukat.

602 398 328

Adinekoak zaintzeko prest nago.

Esperientzia handia daukat.

641 756 213

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka.

Behar diren titulua eta agiriak egunean dauzkat.

631 094 403

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Orduka, gauzez, etxeko langile moduan edo asteburuetan jarduteko prestutasuna.

632 065 398

Lanerako prest. Adinekoak zaintzen esperientzia handia.

663 937 822

Lanerako prest. Esperientzia handia zaintza lanetan, garbiketa lanetan eta jostun moduan.

631 319 476

Eskaintza

Mekanizazio lantegi baterako langile bila gabiltza. Ez da behar ezagutza berezirik, baina ezinbestekoa da pertsona dinamikoa eta efizientea izatea. Denboraldi luzerako lanpostua. Bidali CVa *comercial@ajubita.com* helbidera edo deitu

943 740 929 zenbakira.

GARAJEAK

17 m2-ko garaje itxia alokatzen dut Lekuederren. Sarrera Musika Eskola ondotik. 3. solairua. 629 526 683

KINTO OSPAKIZUNAK

1957an jaiotako kinto ospakizuna, uztailearen 15ean.

Bazkaria, Sigma jatetxean.

Interesatuak 52 euro sartu uztailearen 11 baino lehen, ES86 2095 5036 5091 2250 1193 kontu korrante zenbakian, zuen izen-abizenak zehaztuz. 13:00etan Kalegoen Plazan elkartuko gara.


1968an jaiotako kinto ospakizuna, ekainaren 10ean.

Bazkaria, Sigma jatetxean.

Interesatuak 68 euro sartu behar dituzte ekainaren 4rako, izena eta abizena zehaztuz: ES7420803619283040069860. 12:30ean batuko gara Viento Sur tabernan argazkia ateratzeko.

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioalari Lanbide-Konplexua</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jakin nahi nuke Komunitateko lehendakariak bere kabuz erabaki dezakeen igogailuak mantentzeko enpresa bati kontratua ez berritzea. Egia esan, etxetxabeen batzarrak erabaki beharreko gaia da.</p> <p>Egoera horretan, kontratua ez berritzea edo kontratua suntsiaraztea batzarraren esku jarriko balitz, presidentek alde aurretik jakinarazi beharko luke erabaki hori. Izan ere, igogailuak mantentzeko kontratuak bertan behara utzi badaitezke ere, Komunitateak hartu beharko lituzke bere gain kalte-ordainak, betiere, enpresa mantentzaileak sinatutako kontratua alde aurretik eteteak eragiten dizkion kalteei buruzko aditu-txostenaren bidez egiaztatuta. Kasu horretan, beharrezkoa da lehendakariak komunitateari aurrez jakinaraztea, eta gero, erabakia gehiengo-erregimenaren bidez hartuko du batzarrak.</p> <p>GOMENDIOA: Kontratuak eteteko aukera hori zuzenean aplikatzekoa dela ulertu behar da igogailuak mantentzeko kontratuetan, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra indarrean sartu zenetik. Izan ere, espresuki debekatzen dira iraupen-epe handiegiak ezartzen dituzten klausulak edo kontsumitzaileek kontratua eteteko duten eskubidea oztopatzen duten mugak. Kontratu mota horretan ezin da ezarri alde aurretik ordaindutako kopuruak galtzea edo eman ez diren zerbitzuengatiko zenbeteoak ordaintzea ahalbidetuko lukeen kostu bidezko kargarik.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Leire**, igandean 5 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko danon partez!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA


“ Tratamendu estetiko bat hartuko dut. Nola ikusiko da nire irribarrea? ”

Hortzetako tratamendu estetiko bat egiteko asmoa baduzu, normala da zeure buruari galdetzea nola emango dizun irribarre berriak prozesuaren amaieran. Aldaz Hertz Kliniketan badakigu garrantzitsua dela emaitzaren ideia argi bat izatea edozein tratamendu hasi aurretik.

Horregatik, tratamendu hau pertsonalizatzea ahalbidetzen duen abangoardiako teknologia dugu, paziente bakoitzaren behar espezifikoak asetzeko eta ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko. Gure aditu-taldeak irribarre digitala diseinatzeko sistema aurreratu bat erabiltzen du. Teknologia hau erabiliz aukeratzen duzun tratamenduaekin zure irribarrea nola ikusiko den aurreikusi ahal izango duzu.

Tresna honek aukera ematen du tratamendu-plana zure nahien eta helburuen arabera doitzeko, eta emaitzekin erabat pozik zaudela ziurtatzeko. Gure kliniketan zure segurtasuna eta erosotasuna zaintzen ditugu zure tratamendu estetikoaren prozesu osoan.

Irribarre digitala diseinatzeko gure sistema funtsezkoa da zure irribarre berria bistaritzen eta nahi dituzun emaitzak lortzen laguntzeko. Etorri bisitan eta hasi zure ametsetako irribarrea lortzeko bidea.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

2 BARIKUA

17:00 'Jolasa kalera barixakuetan'. Lekuederren.

18:30 Egur Arte Tailerreko ikasleen lanen erakusketa. Astelehenetik zapatura, 18:30-20:30 bitartean.

18:30 Kafe Tertulia: '7. artea'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lilan, doan. Segidan, mokadutxo.

21:00 Dantza modernoan jaialdia, Mendaron. Frontoian.

3 ZAPATUA

9:30-12:30 Urazpiko bataioa. Urbizik antolatuta, Olaizaga kiroldegian. Abonatuek, doan.

11:00 Santa Ana jaietako egitaraua prestatzeko bilera Mendaroko gaztetxean

11:30 Lagunarteko errugbi partida gurpildun aulkian. Olaizaga kiroldegian.

4 DOMEKA

9:00 Enduro moto lasterketa. Urnobotza motoklubak antolatuta, albitzuriko industrialdean.

10:00 'Dolmenen ibilbidea'. Bisita gidatua, Karakateko aparkalekutik. Izena emateko: 657 794 677. Antolatzailea: Debegesa.

8 EGUENA

10:00-13:00 Minbiziaren aurkako elkartearen informazio mahaia. Kalebarren plazan. Antolatzaileak: AECC eta Gizarte Zerbitzuen Saila.

19:30 Musika eskolako ikasturte amaierako kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.
 20870 ELGOIBAR

 **Galdetu prezioak eta gustura eranizungo dizugu.**



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

EKAINA

- 2 BARIKUA
- 3 ZAPATUA
- 4 DOMEKA
- 5 ASTELEHENA
- 6 MARTITZENA
- 7 EGUAZTENA
- 8 EGUENA
- 9 BARIKUA

Egunez

- Oruesagasti
- Barrenetxea
- Barrenetxea
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez
- Ibañez

2023 urte guztian, gaez: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
 Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:
 Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:
 Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384



Jesus Mari Gabilondo Etxabe

2023ko maiatzaren 27an hil zen Brasilen, 78 urte zituela.

***Nahiz eta urrun joan
gure artean izango zara betiko.***

Familia guztiaren partez



Jesus Mari Gabilondo Etxabe

2023ko maiatzaren 27an Brasilgo Vinhedon hil zen,
78 urte zituela.

Beti gure gogoan.

Zure kuadrilla



II. URTEURRENA

Enrique Eguren

2021eko ekainaren 4an hil zen, 94 urte zituela.

Beti gurekin/zurekin

Etxekoak





Euskara ala ez
Literaturan?

ELGOIBAR, urriak 7, larunbata (9:30-14:30)

Sarrera hitzaldia

Andu Lertxundi



Kulturak guztia alda dezake.

Euskal irakurlea: zelakoak gara? Zein gara? Zenbat gara?

Harkaitz Zubiri



Hitz egokiaren bila

Nolakoa da gure lengoia literarioa?
Nondik edaten dugu? Zer falta zaio?

Iñigo Aranbarri
Miren Amuriza



Itzulbideak, itzulinguruak eta itzulipurdiak

Ekimenak, esperientziak, erronkak.

Katixa Agirre
Arrate Hidalgo
Uxue Alberdi



Nola sortzen da irakurlea?

Irakurzaletasunaren etapak.
Literaturzaletasunaren transmisioa. Nork-Nori-Nor?

Asier Serrano
Irati Jimenez
Jasone Osoro



Amaiera-testua: ZENBAT BIZI!

Oihana Arana
Leire Vargas



MEZA NAGUSIA

Uxue Alberdi
Iban Urizar Amorante



Pintxo-bazkaria (nahi duenarentzat)

OHARRA: areto nagusiko sarreran AZOKATXOA antolatuko dugu,
liburuak ikusteko eta erosteko aukerarekin.

Info gehiago eta izen-ematea:
www.elgoibarkoizarra.eus
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
943 741 626

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babesleak:

